

20 >

EKINTZA, ERALDAKETA SOZIAL ETA PERTSONALA BULTZATZEKO ETIKA OINARRI HARTUTA

Arlo orokorra

- 1 >** **Eusko Jaurlaritzako hauteskunderen** testuinguruan, Baketik **bizikidetzaren politiken inguruko mahai ingurua** antolatu zuen pasa den **irailaren 19an alderdi politiko nagusiekin**. Honakoek hartu zuten parte: **Joseba Egibar (EAJ), Julen Arzuaga (EHBildu), Rafaela Romero (PSE-EE) eta Juantxo Iturria (Ahal Dugu)**.
- 2 >** Baketik **hamar urte** bete ditu eta urritik hona urtemuga hori ospatzeko hitzaldi ziklo bat antolatu du, Lehena, **politika sozialen ingurukoa, Vicenç Navarrokekin** egitea zegoen aurreikusita, baina azken orduko osasun arazoak medio, bertan behera utzi behar izan zen ekitaldia.
- 3 >** Bigarren hitzaldia joan den **azaroaren 26an** izan zen, San Telmo Museoan. **Memoria politikak: gogoratzeko eskubidea ala ahazteko eskubidea?** izenburupean, hitzaldira gerturatu zirenek bi gonbidatuen hitzak entzun ahal izan zituzten: Munster-go Wilhelms Unibersitat-eko Doktorea eta Ikerketa Zientifikoaren Kontseilu Goreneko Irakasle **Reyes Mate Ruperez**, eta Zaragozako Unibertsitateko Zuzenbidearen Filosofian Katedradun **Ignacio Lacasta Zabalza**. **Bideoa**.
- 4 >** Urteurrenaren harira hedabideetan izan dugun oihartzunari dagokionez, hiru **elkarrizketa** nabarmendu genitzake: **Berria 16/10/19: Baketik: hamar urte bizikidetzaren berri baten alde lanean; Diario Vasco 16/11/9: La gente empieza a abrir los ojos y se pregunta: ¿En serio celebrábamos antes la muerte de una persona?; Noticias de Gipuzkoa: 16/11/28: El mayor reto de la convivencia en Euskadi en el futuro cercano es gestionar la diversidad.**

Bake eta bizikidetza saila

5 >

Udalek bakea eta bizikidetza sustatzeko programak aurrera eramateko **Gipuzkoako Foru Aldundiak** ematen dituen diru-laguntzen ebazpena ezagututa, Baketik **13 herritan** ari da lanean. Tokian-tokian adostutako proiektuetako bakoitzaren arabera ekintza desberdinak egiten ari gara herri bakoitzean. Baina denek gauza bera erakusten dute: **gero eta gehiago** direla euren lehentasunetan gai hau sartzearabaki duten herriak.

6 >

Programa hauetako baten barruan, **Elgoibarko** bizikidetzarako herritarren taldeak, Baketiken laguntzarekin, **oroimenaren inguruko hausnarketa** saio bat egin zuen **azaroaren 8an**. Bertan izan ziren **alderdi guztietako** ordezkarri eta militanteak, baita nahi izan zuten herritarrak ere.n.

7 >

Erreterian egin zen antzeko beste jarduera batean parta hartu zuten Baketiketako bi lagunek, dinamizatzaile moduan. **Azaroaren 10ean** egin zen eta bertan parte hartu zuten **alderdi politiko guztietako** militanteek eta udalak berak gonbidatutako beste zenbait herritarrek.

8 >

Eusko Jaurlaritzak pasa den **azaroaren 11an** aurkeztu zuen **Giza Eskubideei buruzko baliabide pedagogikoen** Aieteko zentroa eta **Baketiketako lau kide** aurkezpen jardunaldi hori dinamizatzen aritu ziren.

9 >

Baketikek, Mugen Gainetik GKEErekin eta Lasarte-Oriako bizikidetzarako herritar taldearekin batera, **"Ozpinares sindromea"** dokumentala aurkeztu zuten joan den **azaroaren 28an** herriko kultur etxean. Dokumental horrek Guatemalako eta Euskal Herriko bake prozesuetan emakumeek duten tokiak hitz egiten du.

10 >

Baketiketako kide batek parte hartu zuen, **azaroaren 24an**, Donostiako **Bake Ibilbideak** ekimenean, iraganaz, orainaz eta etorkizunaz hausnartzera gonbidatzen zuen ibilbide tematiko bat. Jarduera **Demagun eta EGK**ren artean antolatuta zuten Demagunek urtero antolatzen dituen jardunaldien barruan; jardunaldi horien helburua izaten da estatu espainiar guztiko gazteak elkartzearabakeaz eta elkarrizketaz hausnar dezaten.

Elkartasun saila: Izeba proiektua

11 >

Gaur egun **90 harreman aktibo** daude **Izeba proiektuaren** baitan, edo beste era batera esanda, ahultasun egoeran dauden adingabe edo gaztetxoek osaba/izeba moduan aritzen diren 90 familia. Horietatik **49 familia boluntarioen** Gipuzkoako Foru Aldundiaren zaintzapean dauden adingabekoen arteko harremanak dira eta beste **41, zaintzapean egon ez arren, euren Izeba familiarekin harremana mantentzen duten gazteak** dira. Azken seihilekoan gainera, maiatza eta ekainean egindako **sentsibilizazio kanpainari** esker, **27 pertsona edo familia boluntariok bat egin dute proiektuarekin** eta horietako asko jada "Izeba" dira.

12 >

Baketikek eta **Gipuzkoako Foru Aldundiko** Haurren eta nerabeen babeserako zerbitzuak jada adostu dute **2017rako ekintza plana, Izeba proiektua garatzeko** lan hitzarmenaren barruan.

13 >

Baketikek, Gipuzkoako Foru Aldundiaren laguntzarekin, **Izeba proiektuaren sistematizazio** lan bat egin du. Horietatik ateratako hainbat ikasketa eta proposamen gehituko zaizkio datozen hilabeteetan orain arte martxan izan den programari.

14 >

Urriaren 27an III Nazioarteko Biltzarra: "Gizarte Lana, loturak sortzeko artea" izeneko biltzarrean **Izeba Proiektuaren** komunikazio bat aurkeztu zen, boluntarioen eta ahultasun egoeran dauden adingabeen arteko harremanek duten garrantziaren inguruan.

Antzerki Forumaren saila

15 >

Urtea amaitzearekin batera **Donostia 2016 Europako Kultur Hiriburutzaren amaiera** etorri zen ere; Baketik parte hartu du programa horretan **Eta hik zer? Antzerki Forum** lantegiaren bitartez. 2015eko otsailean hasiera eman zitzaionetik, **1.700 lagun baino gehiago** pasa dira gure oholtza ibiltaritik, EAE osoan eta Nafarroan eskaini diren **ia 100 saioetan**. Egitasmoaren helburu orokorra bizikidetzako ara-

zoei aurre egiteko moduei buruzko hausnarketa pertsonal eta kolektibo bat bultzatzea zen eta legatu bezala geldituko dira parte-hartzaile bakoitzak bere inguruko bizikidetzak hobetzeko desioa eta helburu hori betetzeko hartutako **konpromiso** bana. Desio eta konpromiso hauetako batzuk ikusgai daude due-la hilabete batzuetatik **DSS2016ren Bakearen Milian**.

16 >

Nafarroako Gobernuarekin lankidetzan, **eskolan balio etikoak sustatzeko Antzerki Forum** eskaintza **Nafarroako ikastetxeetara** zabaldu da lehen aldiz. Alde batetik, 2016an **Hezkuntza Saileko Bizikidetzak Aholkularitzak** eskola jazarpena saihesteko martxan jarritako Laguntza Programaren baitan hainbat saio eskaini ditugu. Bestetik, **Bake eta Bizikidetzak Sailarekin elkarlanean** hasi ginen eta 2017 guztira luzatuko duenaren itxura gutzia du. Honen bitartez Nafarroa osoko sare publikoko ikastetxeek izango dute aukera Antzerki Forum saioak eskatzeko.

Bideoteka saila

17 >

Urtero bezala **hamar film berri** aukeratu dira bideotekan txertatzeko eta bakoitzaren gida didaktikoa ere egin da: **12 años de esclavitud, Inside out, Amama, Sin retorno, Lasa eta Zabala, Cobardes, ¿Y ahora adónde vamos?, La educación prohibida, La lista de Schindler eta El niño con el pijama de rayas**.

Bestetik, **bideoklub** zerbitzuari dagokionez, hamar film aukeratu eta dagokion gida didaktikoarekin batera bidali dira. Zerbitzu honen bitartez **100 lagun baino gehiagok 10 film** jasotzen dituzte euren etxe edo zentroan kuota baten truke. Hauek dira 2016an hautatu ditugun 10 filmak:

18 >

1. **"Lasa eta Zabala" (Pablo Malo, 2014)**
2. **"Del revés (Inside out)" (Pixar/Disney, 2015)**
3. **"La última noche" (Spike Lee, 2002)**
4. **"Cobardes" (José Corbacho; Juan Cruz, 2008)**
5. **"El cazador" (Michael Cimino, 1978)**
6. **"El hombre que mató a Liberty Valance" (John Ford, 1962)**
7. **"El show de Truman" (Peter Weir, 1998)**
8. **"El jardinero fiel" (Fernando Meirelles, 2005)**
9. **"La lista de Schindler" (Steven Spielberg, 1993)**
10. **"El gran carnaval" (Billy Wilder, 1951)**

Formakuntza saila

19 >

Elizondoko Bidelagun elkartearekin sufrimendua ulertzeko ikastaroa egin zen pasa den **abendua-ren 17an**. Boluntarioen elkarte honek formakuntza eskaintzen du urtero bere kideentzat eta aurten sufrimenduaren gaia jorratu nahi zuten, boluntariotza lana egiten duten arloen errealitateagatik. Jasotako erantzunen arabera, **oso gustura** gelditu ziren ikastaroan jasotakoarekin.

20 >

Izan Proposamenari buruzko ikastaroak egin dira **bi ikastetxetan**: bat **Urrietan**, lehen hezkuntzako irakasleei zuzenduta, eta bestea **Iruñean**, gurasoei zuzenduta.

baketik

ERALDATZE PROZESUAK,
ETIKA HARTUTA ABIAPUNTU